


KONTSUMITZAILEAREN KONFIANTZA

EAEko familien konfiantza maila positibotan dago

Familien konfiantza indizea




EAEko familien konfiantza indizea balio positibotan finkatu zen 2017ko laugarren hiruhilekoan eta 1eko balioa lortu zuen. Are gehiago, adierazleak gora egin zuen aurreko hiruhilekoan jasotako emaitza apalaren aldean. Konfiantza indizearen 2017ko batez besteko balioa ere 1ekoa izan zen, 2016an -5ean kokatu zen bitartean. Goranzko joera horren oinarrian, EAEko kontsumitzaileek ekonomia orokorraz eta enpleguaren hobekuntzaren igurikimenaz duten iritzi baikorragoa dago. Aitzitik, familiaren ekonomiaz eta aurrezteko igurikimenaz duten konfiantza oraindik balio negatibotan dago. Beste adierazle batzuei buruz erantzun dutenez, kontsumitzaileek prezioen hazkundera areagotuko dela eta erosteko unea egokiagoa dela uste dute, nahiz eta azken aldagai hori oraindik balio negatibotan kokatuta dagoen.

FAMILIEN KONFIANTZA INDIZEA

	2015	2016	2017	2017				
				IV	I	II	III	IV
Kontsumitzaileen konfiantza	-6	-5	1	-3	-3	5	0,4	1
Ekonomia orokorra	-4	-7	6	-5	-3	12	9	6
Familien ekonomia	-9	-5	-5	-3	-8	-3	-5	-4
Langabeziaren bilakaera	3	9	12	9	10	23	7	9
Aurrezteko ahalmena	-16	-12	-10	-12	-12	-12	-9	-8
Prezioen bilakaera	6	14	-17	6	-29	-18	-6	-17
Erosteke momentua	-19	-8	-3	-9	0	-3	-5	-2
Erosketen gauzatzea	-12	-10	-7	-12	-12	-8	-2	-7

Iturria: Laboral Kutxa.


Enpresarien konfiantza indizea



Laboral Kutxak osatzen duen enpresarien konfiantza indizea 56,8an kokatu da, aurreko hiruhilekoko emaitza-
ren aldean jaitsiera txiki bat adieraziz. Izan ere, 2018ko lehen hiruhilekorako enpresariak aurreikusten duten
eszenategiak ekonomia bilakaera ez dela horren baikorra izango iradokitzen du.

Oraingo edizio honetan galdera bat gehitu da Kataluniako krisiak hemengo enpresetan 2018ko lehen hiruhile-
koan izan ditzakeen eraginak jakiteko. Enpresen %82,2k uste du ez duela inolako eraginik izango bere emaitze-
tan eta %17,8k, ordea, guztiz kontrakoa pentsatzen du. Azken horien artean, bi heren inguruk uste du eroske-
tetan edo salmentetan gauzatuko den eragin hori zeharkakoa izango dela.

Enpresarien igurikimenak. 2018ko I hiruhilekoa



Enpresen baikortasun handiena fakturazioan, jardueran eta eskarietan hautematen da. Hiru atal horietan askoz
gehiago dira hobekuntza nabaritzen dutenak okertzea hautematen dutenak baino. Inbertsioan eta enpleguan
ere saldoa positiboa da, garbi.